

Miarritzeko Ikastolaren barne araudia

2019-2020 ikasturtea

Ikastolaren barne araudiaren helburua, hezkuntza komunitate osoarentzat giro lasaia bermatzea da. Ikastola barneko guztiei aplikatzen zaien komunitatearen kide bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak definitzeko balio du.

Denek, erregularitasuna eta puntualtasuna, pertsonen sentsibilitatearen arabeko tolerantzia eta besteenganako errespetua haien ardurapean hartu behar dute; gainera neska mutikoen eskubideen berdintasuna, indarkeria psikologiko mota guztien aurkako babes fisikoa edo morala errespetatzea eskatua zaie.

Indarkeria fisikoa edo hitzezkoa ez da inoiz onartua izango. Helduen arteko, heldu eta ikasleen arteko eta ikasleen arteko elkarrekiko errespetua komunitateko bizitzaren oinarrietako bat da.

Prozedura-arauak errespetatzeak haurren garapena sustatzea eta komunitatean bizitzen irakastea ahalbidetzen du.

Arau hauek ez betetzeak zigorrak aplikatzea dakar (abisua, posta, kanporaketa, ...).

Ikastolan parte hartzen duen orok ikastolako barne araudia irakurri eta bete beharko du.

1. Onarpena eta izen ematea:

Ikastolak urtero ate irekiak antolatzen ditu martxoan zehar. Seme-alabak ikastolan ezarri nahi dituzten gurasoek, une honetan edo ikastolako zuzendariaren bidez egin dezakete.

Eskola integrazio dispositiboan sartzen diren ikasleentzat, eskola proiektua (PPS) abian ezarriko da. Ikastetxearen proiektuaren baitan aurreikusitako jarduera guztiak eta SPPrekin bateragarriak, eskuragarri izan beharko dira.

2. Gurasoen engaiamendua

Ikastola guraso guztien parte hartzearekin bakarrik bizi daitekeen eskola elkarte da.

Familiak, urte hasieran eskola ordainsaria ordaindu behar dute (ikasturtea hasi baino lehen aurkeztutako agiria) eta ordaintzeko edozein zailtasun balego diruzainekin harremanetan jarri beharko dira.

Familia bakoitzak komisio batean parte hartu behar du (komisio guztien zerrenda sartzeko gutunean aurkitzen da) eta biltzar nagusietan parte hartu behar du.

Gurasoek lan-txandak egin behar dituzte, bat Herri Urratsen eta beste lau ikastolako ekitaldietan. Lan txanda batean edozein gabeziagatik, gurasoek beste gurasoekin edo familekin aterabide bat bilatu beharko dute.

Ikasturtearen hasieran, araudi hau sinatua izan behar da eta administrazio kontseiluak kontuan har dezan, familia bakoitzak, 100 €-ko 5 txeke eman beharko ditu Miarritzeko Ikastolaren izenean, orotara 500 €.

Ikasturteko azken lan ekintzaren bukaeran, galdetutako lan txandetan parte hartu ez bada, txekeak (betebehar horiek adierazten duten diru gabeziari lotuak) hartuak izanen dira ez betetako lan txanden kopuruaren arabera. Hartze bakoitzeko 100 € (txanda 1 5en gain falta bada: familiak 100 euro ordainduko du; 5 txanda 5en gain eskas badira: familiak 500 € ordainduko du).

Erabiliak izanen ez diren txekeak, familia bakoitzari itzuliko zaizkio hurrengo ikasturtearen hasieran,

ikastolan oraindik izena emanda duten familientzako txeke berriak igorriko dituztenean. Miarrizko Ikastolaren elkartearen gehiago buraso ez diren familiek, txekeak eskaera sinple baten bitartez eskuratzen ahalko dituzte.

Emandako txeekeen ordain ahalmenean edozein arazo izanez gero, Miarrizko Ikastola elkarteak edozein ekintza eta prozedura hasteko eskubidea izanen du, kideek zor duten dirua eta prozedura horiekin lotutako kostuak berreskuratzeko.

3. Eskolan parte hartzea eta betebeharrak:

Ikastolan izen emateak, haurraren ohiko presentzia dakar, baita haurtzaindegian ere. Irakasleek Hezkuntza Nazionaleko Inspektoreari jakinarazi behar dizkiote hilabetearen bi egun baino gehiagoko bidegabeko huts egiteak.

Gurasoek, seme-alaben huts egiteak berehala ikastolari jakinarazi behar dituzte (ahoz, telefonoz, posta elektronikoz) huts egitearen arrazoa emanez. Gaixotasun kutsakorra izanez gero, mediku ziurtagiria eman beharko da.

Zuzendariak huts egite baimenak eman ditzake, gurasoengandik idatziz eskatuak, salbuespenezko betebeharrak betetzeko.

Irakaskuntza edota langile-taldeak greba eginez gero, bulegoko kideek ikastolako haurren harrerari buruzko erabaki egokiak hartuko dituzte.

4. Harrera - Orduategia:

Haurra, ikastolara iristen denean eta bere klase eguna lasaitasunez hasteko baldintza onak izateko egiteko eskubidea du; horretarako burasoek segurtatu behar dute, haien haurra goizean tenorez iristen dela eta haurtzaindegia itxi aurretik ateratzen dela.

Haurrak, fisikoki segurtasunean izateko eta noren gain bermatzen ahal den jakiteko eskubidea du. Horretarako, heldu baten ardurapean egon behar du.

Gurasoek, beraz, seme-alabak irakasle edo haurtzaindegiko koordinatzaile batengana eraman beharko dituzte erantzukizun transferentzia hori gauzatu ahal izateko. Ber maneran, arratsaldetan gurasoak umea heldu batengana jasotzera etortzen dira. Umeak ez du ateka bakarrik zeharkatu behar.

➤ 1. zikloko klaseen ordutegia:

Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: 8:45etatik 11:45etara (goizez) eta 13:15etik 16:15era (arratsalde).

➤ 2. zikloko klaseen ordutegia:

Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: 8:45etatik 12:00etara (goizez) eta 13:30etik 16:15era (arratsalde).

➤ 3. zikloko klaseen ordutegia:

Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: 8:45etik 12:15era (goizez) eta 13:45etik 16:15era (arratsalde).

➤ Estudioak:

Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: 16:30etatik 17:15etara, 2., 3., 4. eta 5. urteko ikasleentzat.

➤ Haurtzaindegia:

Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: 7:45etik 8:45era (goizez) eta 16:15etik 18:30era (arratsalde).

- Gelaz kanpoko aktibitateak:
Eguerdiko pausa denboran igaro dira

5. Bizia ikastolako eremuan :

Ikastolak funtsezko paper bat betetzen du haurren sozializazioan : dena egina izan behar da ikaskizunei bidea erresteko eta haurren loratzea bultzatzeko.

Ikaslea ongi sentitu behar da, seguritatean, fisikoki eta moralki, egun osoan zehar. Jantzi egokiak eraman behar ditu, erosoak eta ikastolari egokituak.

Haur bat bere ikaskizunetan edo beste haur batzuek trabatua baldin bada, anderenioari edo langileari esan behar dio. Harek, hobekien iruditzen zaion bezala tratatuko du arazoa : haurrarekin eztabaidatu edo taldean, arauen oroitaraztea eta agian heziketa zigor bat eman (barkamena galdetu, konpondu, taldetik une batez baztertu...)

Burasoek ezin dute haiena ez den haur batekin sartu (gaitziketak...). Nahi badute beste haur baten jokaeraz edota esan zaien jokaera batetaz mintzatu heziketa taldeko heldu batekin kontaktoan ezarri behar dira.

Haur baten jokaerak luzaz eta larriki gelaren funtzionamendua nahasarazten badu, haur horren egoerak heziketa taldearen azterketa beharko du (buraso, erakasle, zuzendari, langileen ordezkari bat ere eskolaz kanpoko denboran arazoak sortu badira) nun eskoletako medikua edota edozein kanpoko heziketa profesional gongodatu izaten ahalko den.

Haurren jokaera ez bada aldatzen emandako aholku eta medioez gain, zuzendariak eta bulegoko kide batek haurren burasoak deituko lituzkete eta denbora bateko kampionatze erabakia hartu litzateke.

➤ *Aire hartze lekua:*

Aire hartze lekuan haurrek segurtasun osoz jostazeko eskubidea dute eta hortarako duten materiala erabiltzen ahal dute (bizikletak, monopatinak, ttikiendako motoak, futbol zelaia, saski baloiak, ping pong mahaia haundientzat) .Erakasleek eta administrazio kontseiluak une horien zaintzea antolatzen dute eta burasoen kargu da lekua eta materialaren mantentzeari kaxu egitea (konponketa ttipiak, herriko etxeari ohartarazteak edo konponketa taldeari helarazi konponketen zerrenda, materiala aldatzea, jostailu berrien hornitzea beharrezkoa baldin bada...).

Haurren eginbeharrak :

- Baimendutako leku guztietan jostatu (zainduak direlako)
- Materialari kaxu egin, bere erabilerarako kontsignak errespetatu,
- Helduei galdetu egoera bat ezin dutelarik kudeatu

➤ *Komunak:*

Haurrak komunera joateko eskubidea du (gela denboran edo aire hartze denboran) eta lasaiki eta seguritatean egon behar du. Beraz komunak ez dira helduen begibistaz kanpo diren joko lekuak. Erakasleak zaintzen duen aire hartze hasierako komuneratzea kanpo, haurrek helduei komunera joateko baimena galdetu behar dute eta ahal bezain garbi utzi behar dituzte (paperik ez lurtean eta ikuzleketan eta komuneko turrusta tiaturik...)

Haur batek laguntza behar badu, heldu bati galdegin behar dio.

➤ *Jantokia :*

Haurrak, giro lasai eta gune garbi batean jateko eskubidea du. Horretarako, lasai egon eta tokia, materiala eta janaria errespetatu behar du. Prestakuntzan edo garbiketaren parte hartzea galdegiten

ahal zaio (mahaia prestatzen, biltzen... lagundu).

Nahi bezain bat jateko eta edateko eskubidea du. Gehiago jan edo edan nahi baldin badu, heldu bati galdegin behar dio.

6. Osasuna

Nehork (ikastolako irakasle edo langile) ez du haur bati erremedio baten emateko eskubiderik. Gurasoek, beren medikuari preskripzioa egokitzea galdegin behar dute. Ikastolako ordutegietan, erremedioaren hartzea ezin bestekoa baldin bada, gurasoek etorri beharko dute beharrezkoa dena ematera.

Alergiak, elikadura bati intolerentzia edo denboran zehar bilakaerak ezagutzen ahal dituen osasun zailtasunak dituzten haurrentzat, bere artatzea ikastolako medikuak idatzi eta irakasle taldeak, gurasoek eta Miarrizteko ikastolak, bere buleoaren bitartez, izenpetuko duten bakarkako harrera proiektu baten esparruan egingen da. Horrek, arazo baten kasuan haurrak behar duen tratamendua hartzea ahalbidetzen du hezitzaileek beharrezkoa izanen den protokoloa ezagutzuz.

Istripu edo osasun arazo baten kasuan

Haurrak ahal bezain baldintza hoberenetan zaindua izateko eskubidea du.

Zuzendariak, lehen sokorrientzako materiala zaindu eta farmazia berritu behar du.

Urte hasieran, gurasoek "larrialdi fitxa" zehazki bete behar dute eta beste aldaketak urtean zehar seinalatu (gurasoen helbidea(k), haurraren osasun bilakaera)

Ikastolak (irakasle, zuzendari edo animatzaileak) haurraren osasunarekin duda bat baldin badu (kolpe, erortze, min...), familia deituko du ahal bezain fiteen haurraren xeka etortzeko gisan. Beharrezkoa neurtzen baldin badu, ikastolak SAMU-a deituko du: horrek beharrezko jestu eta erabakiak hartzen lagunduko du.

Ikastolatik kanpo egin beharrezko osasun artatzeen kasuan:

Ikaslea, gurasoekin edo hauek izendaturiko pertsona batekin ikastolatik ateratzen ahalko da beharrezkoak dituen zaintzak ukateko gisan. Beste haurren harrera ez nahasteko, aitzinetik ateraldi hauen egutegia irakasle edo animatzaileei zehaztea garrantzitsua da. Gurasoek deskargu agiri bat izenpetu beharko dute.

7. Higienea:

Hurrek toki garbi batzutan bizitzeko eskubidea dute.

Enpresa bat egunero ikastolaren garbiketaz arduratzen da eta gurasoek ostiralero txandaka garbiketa egiten dute. Astelehenetan hurrek tokiak garbi atxemateko gisan, gurasoek beren lan txanda eta segitu beharrezko prozedurak errespetatu behar dituzte.

Hurrek ere gunee eta materialaren garbiketan / bilketan parte hartzen ahal dute.

8. Sekuritatea

Gurasoek atekaren ardura duen langilea deitu eta aurkeztuko dira honek atea ideki dezan. Atea erabiltzerakoan, aldi oro ongi itxia den segurtatu beharko dute.

Ikastolatik ateratzeko, gurasoek digikodean kodea egingen dute. Ez da inola ere ez haurrari kode eman edo egiten utzi behar.

Ateka 8.45etatik 16.15ak arte gakoz itxia izanen da. Tarte horretan ikastolara sartzeko ezohizko justifika agiri bat beharko da.

Berantean iristen direnek aire hartzean ezik (ama ikastola 10.30tan eta lehen maila 10.15etan), ezingo dute ikastolara sartu. Erregulariki edo ezohizko berantak aitzinetik idatziz irakasleari abisatzen ahal dituzue (hitzorduek: medikuan, ortofonistan, psikologoan edo beste).

Ikastolako zuzendariak, Biarritzeko herriko etxearen lankidetzarekin, ikastola barnean aurkitzen ahal diren arriskuak neurtzeko urteko prebentzio programa bat plantan ezarri du.

Familia:

Nik,..... eta nik,....., 2019-2020 ikasturteko barne arautegia kontutan hartu dugula segurtatzen dugu eta errespetatuko dugula hitzematzen dugu.

Biarritzen,-a